



\* proiektuaren inguruko artikulua laburra irakurtzeko [hemen](#)

\* [elkarrizketa Tas-Tas irratian](#)

## Zer da?

- Egitasmo komunikatibo herritarra Barakaldoko ardatz herri mugimendua.
- Egitasmo parte hartzailea (herritarrok borondatez egindakoa)
- Proiektu ezkertiarra eta Euskal Herria aintzat hartzen duena
- Euskarri informatibo elebiduna.

## Zertarako?

- Barakaldoko herri mugimenduei bozgoragailu berri bat eskaintzeko. Deialdiak, ausnarketak, kexak, gonbiteak, ametsak, arerioak...ezagutzera emateko tresna bat sortzen ari garaKomunikabide poteretsuen monopoliorean aurrean alternatiba herritar bat izateko.
- Barakaldo udalerrria eta bertako herri mugimenduak oinarri dituen gune informatibo bat eskaintzeko Herritarren eta herri mugimenduen arteko informazio eta elkarlan sareak osatzen laguntzeko
- Herritarren partehartzea bultzatzeko. Gure herriko berriak Barakaldoko herritarrok sortu eta kontatzea zuzenena dala pentsatzen dugulako.
- Ohiko komunikabideetan tarterik ez duen Barakaldo anitza eta bizia ezagutarazteko...kultur adierazpenak, herri burrukak, hezkuntza egitasmoak, herri proiektuak, auzolana...
- Barakaldarrei informazioa era atsegin, ulergarri eta eskuragarrian eskaini ahal izateko.

## Nola?

- Apurka apurka bidea eginez: WEBGUNEA abiapuntuInformazioa era antolatuan jasoz.
- Honako hauek izango dira atal nagusiak: Herri mugimendua, Udala, Auzoak, Euskal Herria, Nazioartea, Agenda, Multimedia eta loturak.
- Egitasmoa ezagutaraziz eta herritarren eskura jarriz kaleetan ere presentzia izanik.
- Internetetik Barakaldora baina interneteko mugak gainditzeko asmozInformazioa era dibertsifikatuan aurkeztuz: erreportaiak, berriak, gutunak, kexak, bideo-elkarrizketak, audioak, argazki galeriak, dokumentu bildumak, kolaborazioak, irratsaioak, hilabetekariak...
- Kolaboratzaile sarea antolatuz.
- Herri mugimendua eta herritarren parte hartzeari bidea emanez: inkestak, informazioa jaso eta igortzeko bideak, kexa-potea ...

## Webgunearen Antolakuntza

### 1. ATALA: BARAKALDO

### Herri mugimendua

Barakaldoko herri burrukekin lotutako informazioa

- Justizia Soziala
- Euskara
- Migrazioak
- Internazionalismoa
- Emakumea
- Kultura
- Gazteria
- Mugimendu Antierpresiboa
- Sexualitateak

....etab.

### Udala

Udalgintzan sortutako informazio guztien bilduma

### Auzoak

- Auzolana : Auzoetatik sortzen diren ekimenen berri jasoko duen atala (ekimenak, proposamenak,...)
- Kexa potea : Auzoetan dauden gabezi zehatzen gaineko kexak bideratzeko atala

## 2. ATALA: EUSKAL HERRIA

Barakaldo gainditzen duten interes orokorreko informazioak jasoko ditugu:

- Artikuluak
- Bideo-notiziak
- Erreportaiak
- Kolaborazioak
- Azterketa politikoak...

## 3. ATALA: NAZIOARTEA

Euskal Herria gainditzen duten interes orokorreko informazioak jasoko ditugu:

- Artikuluak
- Bideo-notiziak
- Kolaborazioak
- Erreportaiak
- Azterketa politikoak
- Nazioarteko askapen burruken eragileak...

BESTE ATALAK:

## AGENDA

Barakaldoko deialdi anitzak bilduko ditugu izaera desberdinen arabera sailkatuak (formakuntza,

mobilizazioak, erakusketak, dirulaguntzak, lehiaketak...).

## MULTIMEDIA

Atal honetan bideoak, dokumentuak eta argazki galeriak kokatuko ditugu

## LOTURAK

Loturak interesgarri suerta daiztekeen webguneen erreferentziak.

## PARTE HARTU

- Zure elkarteak sortutako informazioa (ausnarketak, proposamenak, kexak, deialdiak...) guri helaraziz:

info[a bildua]herrikolare.org

- Zure auzoarekin lotutako kexak bidaliz: kexapotea[a bildua]herrikolare.org

- Barakaldo, Euskal Herria edota Nazioartea, atal desberdinen gaineko kolaborazioak igorritz: info[a bildua]herrikolare.org

- Barakaldon burututako ekimen desberdinen inguruko argazki edota bideoak webgunera bidaliz: info[a bildua]herrikolare.org

- Webgunean jasotzea interesgarria deritzozun informazioa helarazten: info[a bildua]herrikolare.org.

- Webguneko inkesta eta bozketan parte hartzen HerriKolare lan taldean zuzenean parte hartzen.